

ITZ BI

Eche-Bataioaren gañean

Bear bearrekoa

Emakuma ezkondu, ezkongai,

eta emaguitzan

dabiltzan guztientzat

SENDATZALLE BATEK

(BEAR DAN BAIMENAREKIN)



BERGARA-N

ario guztiz santuaren moldiztegian

1909-an

ATV

18966



ITZ BI

ECHE-BATAIOAREN GAÑEAN

18 101

THE UNIVERSITY OF CHICAGO

M-8803

R-36325

ITZ BI

ATV

18.966

Eche-Bataioaren gañean

Bear bearrekoa

Emakuma ezkondu, ezkongai,

eta emaguitzan

dabiltzan guztientzat

SENDATZALLE BATEK

(BEAR DAN BAIMENAREKIN)



B E R G A R A - N

Errosario guztiz santuaren moldiztegian

1909-an





I

Erregua

Ez utzi arren, irakurlea, ondo ikuzi gabe zer ezaten dizun liburucho onek, neke andi gabe egiñ dezakezun lana da, bada zere aurrean daukazu zeñ chikia eta laburra dan; baña, alaz guztiz ere, andia da bere ontazuna, eta ez da laburra onekiñ egiñ daikazun zori ona. Ezaten da erlecho batek irureun eta geiago lora chupatu bear duela ezti pizkacho bat egiteko, baña zuk orrembezte ibilli egin gabe billatu daikazu zere animarentzat ezta bera baño gozoagoa eta azkoz balio geiakoa, baldin on-

do egiten badezu emen ezaten zai-
zuna.

Eta kezka charrik iduki ez de-
zazun argitza onekin ezango dizut
Pablo Apostolo santuak erromata-
rrai ezan ziena ber bera: «Guk
emen ezaten deguna ez da dotri-
ña berria, aiñ guchi gurea.» Eta
au da egi bat izan litekean andie-
na, bada eznoa gauza berririk era-
kuztera iñori, bada emen ezaten
dana ez da gure burutik sortua,
baizik da egi bat Eliza Ama San-
tak erakuzten diguna; eta itz ba-
tean ezateko gure azmo guzia da
azaltzea liburuko onetan nola
bertitza edo abortuak ez diran
utzi bear aintzakotzat artu gabe,
azkotan gertatu oi dan bezala, ba-
da oietan dago anima eta ez du
merezi or nola nai botatzea. Sa-
mintazunez eta penaz diot, zeñ ar-
dura guchi irukitzendan gai one-

tan; orregatik naigenduke erakutzi nola kriztautu beardiran koitaidu aien animak, bada anima azko izer au baño gauza penagarriagorik! anima azko diot, ardura gabez, edo ez-jakiñez, itz batean, gurre kulpaz gelditzen ez diran zeru ederrera joan gabe?

II

Bataioaren lembiziko zatia

Bataio santua da lembiziko eta bear bearreko sakramentua, au gabe ez da iñor kapaz bezte sakramenturik errezibitzeko, eta oraindik geiago bera gabe ezin zartu liteke iñor zeru zabal ederrean. Bataioa da beaz zeruko atea, lenengo eta bear bearreneko sakramentua, zergatik bera gabe, ezin salbatu diteke iñor; bataioa

da gure anima garbitu eta jatorriko pekatutik libratzen gaituana eta Jesukriztoren zenide eta Jaungoikoaren seme egiten gaituana.

Beraz bataio santua da Jaungoikoaren adizkidetazuna eta graziara ekartzen gaituan sakramentu santua, au ez dakienik ez dago inor, bañan merezidu zarritan gogoratzera, batez ere emakume ezkonduak eta emagintzan dabil-tzanak.

III

Bataioaren bigarren zatia

Bataio santua egiteko bear dira iru gauza: *gaia*, *era*, eta *emallea*, Elizak egiten duena egiteko azmoz.

Gaia da ura. Onek izan beardu garbia, au da, Aita Santu Gregorio XIII-ak dionez, errekkakua, po-

tzukoa, ichaso, iturri, edo bezte erozin ur erropa garbitzeko ona dana. Bañan aurra iltzeko bildurra badago bataiatu bearda dagoanarekiñ, bada da balio andiko gauza eta ez da orduan erreparatu bear gaia ona dan edo ez, baizikan bataiatu kondizioaren azpian, ala, baldin gertatuko balitzake gai edo ur charrakin bataiatzea gure piñeza eta leialtazunak ez dio bigaberik egiten sakramentu santuari bear ez bezelako gaia ez ipiñiarekin, bada guk gere artean ezkendukan orrelako azmorik baizik on egitea, eta gure Jaungoikoak premiaztendu ona egiteko gogoa eta intenzio zuzena eta garbia. (1)

Bigarren gauza bataiatzeko da *era*, au da, sakramentua bera egi-

(1) Ur bedinkaturik ez da bear eche-bataioan.

teko ezaten diran itzak, eta dira oiek: Nik bataiatzen zaitut *Aitarren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.* (1)

Irugarren gauza da *emallea* sakramentua bera egiten edo ematen duena. Au izan diteke edozeñ bataioa bearrekoa danean, dala gizona, dala emakumea, baita ere herejia edo fede gabea Elizak agintzen duena egiteko azmoarekin egiten badu. Guziaren iritzia da ondoana dakienak bataiatzea.

IV

Bataioaren irugarren zatia

Gure utztez garbi azko ezan degu zerbait gauza beardiran bataiatzeko, au da, *gaia, era eta ema-*

(1) Alasen edo Amen ez dago ezan bearrik S. C. R. Garagarrillaren 9-an, 1853-an.

ilea, Elizak egiten duena egiteko azmoarekin; baita ezan degu *gaia* dala edozeñ ur izan ezkeroz garbia edo erropa garbitzeko modukoa, baña eztoazun bat dagoanean aurra illko otedan edo ez, orduan aldanarekin; eta aizkenik, *era* ezan degu dala sakramentua egiterakoan ezan beardiran itzak, Jesukristok ber berak erakutziak, bada pistu eta zerura igo baño lenago ezanzien Apostoluai: «Soazte munduan lau aldetara eta nik zuei erakutzi dizuena erakutzi eie zue mundu guziaz, eta nigan zinizatzen duena bataiatuko dezute Aitaren, eta Semearen, eta Espritu Santuaren izenean.»

Orain ezan beardegu iru gauza ogai ondo datorkien bezte gauza batzuek:

1.º Bataioko *gaia* edo ura bota bearda buruan kurutza bat egi-

ñaz (1) eta baldin burutik ezin bada issuri liteke gorputzaren edoseñ tokitan, au da, aldan moduan.

2.º Bigarren gauza sakramentua egiteko da *era* edo ezaten diran itzak, oiek ezan beardira garbi eta guziak, au da, batere utzi gabe, eta ezan bear dira ura botatzeko demboran; isillik edo aupean ezana gatik ez dio ardura ondo ezan ezkeroz.

3.º Irugarren gauza da *emallea*, au da, sakramentua egiten duena. Au izan liteke edozein, baña beti egiñ beardu ondoana dakienak, bada au da sakramentu bat balio andikoa.

(1) Eche bataioan azko da gurutza bat egittea naztu eta gaizki egiñ ezdezan, ala dio kardenal Gousse; eta bezte azkok; baña, ondo dakiena badago orrelakoak egin dezala berak naiduen bezela.

V

Konziderazioa abortuen gañean.

Lembiziko zatia

Ezan degun bezala noiz nai, nun nai, eta edozeñek bataiatu lezake aurra illtzeko peligroan arkitu ezkerro, eta onen gañean iduki bearda arraz kontu andia, bada, Jesukrizto gure Jaunak isurizuan Bere odol guztia gure animak salbatzeagatik. Au bezte arrazoirik ez balego ere, au azko lizake beti prest egoteko alako gauzarik gertatu ezkerro aurra bataiatzeko, kontu andia, diot iduki beardala gai onetan eta ez bakarrik demborra betetako aurrarekin, baita ere bertitza edo abortuakin ere; bada berdin daukate anima nola bezte aur guziak. ¿Eta nola ez baldin abortua aurra ber bera bada?

Jaungoikoaren obra guziak dira miragarriak, eta ez da chikienekoa orain ezatea goatzena, onek aditzera emango digu obetoago len ezan degun egia: emakumea aurdun geratzen istantean bertan, an dago anima. Au da egi bat iñok ezin dudatu dezakena eta berau jakitea da arraz premi andikoa guztientzat, bañan batez ere emakumentzat eta oien artean emakume ezkonduentzat, eta batez ere emagintzan ibiltzen diran guztientzat. Egi au bada naigenduke sellaturik bezela gordetzea orain ezan degun emakumearen biotzetan, bada ezin ezan eta ziniztu liteke zembait jakiñ-ez arkitzendan bertitza edo abortuetan, eren egunak amaren zabelean bete baño lenago mundura etortzen diran gajuakin.

Eta duda gabe gai onetan arki-

tzendan ez jakiña emakumearen artean da sobra ere erakutzi ezaielako ¿nola beztela izanik emakumea aiñ biotz biguñekoa eta errukitzua botakoluke baztarrera kriztautu edo bataiatu gabe? Izanik emakuma euzkaldunak aiñ onak eta Jaungoikotzuak ¿nola egiñ lezake onelako gauzarik? Au ezin gertatu liteke fede piska bat duenen edo fede au oso illik ez daukan personaren artean, bada ezin izan diteke iñor zeruko ondazun zoragarriak ukatuko dionik, kulpa gabeko anima inozenteari. eta bezte aldetik ¿zer potz andiagorik izan liteke gurazo batentzat bere medioz anima bat zerura biraltzearekin baizik? Potz andia iduki lezake alako gurazoak, nola bataiatzen duenak, bada onelako anima ez da aztuko zerura bera biraldu duenarekiñ; eta kontrara izer pena

andiagorik anima gais̄soarentzat Jaungoikoaren arpegi ederra ezin ikuzi izatea baño! Bada jakiña dago San Juan Ebangeliztak dion bezala «eziñ iñor zartu liteke zeruko erreinuan bataioko urarekiñ garbitu gabe.»

VI

Konziderazioa abortuen gañean.

Bigarren zatia

Edozeñ demboretan abortua gertatzen dala prest egon bearda bataiatzeko, bada ezana dago amaren zabelean sorzen dan istantean bertan daukala anima, orregatik Zezareo Santuak dio eta baita ere bezte azkok, pekatu mortalaren azpian beartuak daudela aborto ura bataiatzera, naiz dala egun guchikoa izan arren.

Onetan ez dago dudarik. Guk gere buruari ez diogu ukatzen ezer eta on guztia dezeatzen degu geretzat ¿zer bada izango gera aĩn utziak nun gure nagitazuna dala mediante utziko degu bataiatu ga-be erbeztetua betiko anima gaisoa zeru ederretik? Gañera on guztiak geretzat dezeatzen badegu ¿nola ez gera saiatuko bera bataiatzen izanik zierto eta seguroa anima ondo bataiatua dala zerurako? On egitetik ez datorchio iñori gaitzik ezpada ezkerrak edo graziak, eta emendik ez guchi.

Emakumeak iduki beardute kontu andia gai onetan, bada jakiñezak ekarriditu arraz kalte andiak eginkizun onetan. Gaiz au ez da oraingoa baizikan antziñakoa eta gure iritzian ez dago erremedio obegorik berau kentzeko orain ezatea goatzena baño: gazte bat

ezkontzen danean amak erakutzi beardio bere alabari aurdun gelditzen bada istante artan bertan daukala anima, eta suerteak ematen badio dembora baño lenago kampa botatzea, ez dedilla dezkuidatu bataiatu erazizea zerurako izan dedin (1). Onela erakutzi ezkeroz batak bezteari dezeingo da oraindaño gai onetan izan dan ez-jakiña.

VII

Nundik nora datortzen abortuak

Ez dago gai onetan gauza okerragorik lan gogorra baño, eta batez ere nekazarien lanak, laiak, achurketa, eta bezte onelakoak; baita ere karga jatzotzeak, jabon-

(1) Gurazoak ezin bataiatu lezake nolata bear batean arkitzen ezpada, aurra illtzeko zorian, orduan bataiatu dezake.

keta, gobarra egitea, eta oiek az-
tintzea. Izan oi dan baño erruki
geiago ekarri bearzaio eztadu one-
tan dauden emakumeari, bada
tratu gaiztorik ez du bear gorpu-
tza katigu daukaten emakumeak,
eta aldan guztieraño apartatu bear
dira onelakoak neke eta pisu guz-
tietatik. Onela ez egitetik mesede
baño kalte geiago izan lezake pa-
miliak, bada ez lirake ikuziko
orrembezte illtze aur jaiotzean ez
da ere emendik etortzen diran eri-
tazun edo empermedadeak ema-
kumen artean, eta batez ere izan-
goluke zarzaro ohea.

Oraindaño itz egin degu berez
datortzen abortuaren gañean; ez
degu itz egiñ nai bezte abortu nork
berak prokuratzen duenaren ga-
ñean, au ziniztu ere ezin lezake
nolatan gauza guziarekin azturik
ez dagoan bategan ¿nola siniztu

liteke arkitzea inor bere zabelean sortutako bati eriotza ematea baño? Ikara ematen digu aitatzek ere ¿eta nori ez? ¿Zer gauza ikaragarriagorik nor beraren zabelean sortu dan aurrari orrelako tratua ematea baizik? Ori da pekatu andi bat eztaltzea arren bezte bat andi goa egitea. Gizon bat illtzea bezala da orrelako gauza bat egitea, baña amarentzat da oraindik azkoz andi goa, da bere aita illtzea bezala (1). ¿Eta zinizta liteke orrelako gauzarik? Baldin inork diabruak benzituta egingo baluke orrelako gauzarik ekarrikolioke nork berak bere buruari, momen-

(1) Lege zorrozak kaztigatzen ditu onelakoak, eta 425, 426, 427, 428 garren artikuluetan markaturik daude onelakoak merezi dituzten kaztiguak. L. III. T. XIII. VI cap.

Bekatu larria da au egitea eta artarako ezin artu liteke ezta ogi apur batere, eta aiñ guchi eman inori intenzio edo dezero onekin.

tu artan illtzen ezpada chit erreza dan bezala, arraz gaitz andiak, bada jartzen da osazuna galtzeko zorrian edo perillean.

VIII

Nola abiatzendan abortua

Lenengo illetan ezin jakin-liteke aurdun dagoan edo ez, au aditzera emango dio erreglaren paltak, beregatik abortua abiatzenda odolarekiñ, eta onekiñ naztua irtetzen da barruan sortua izan dana. Onek iru azte dituan garaian idukitzen-do keriza ampola baten tamaña, illaren aizkenerako usoaren arraultza bezelakoa, eta bigarren illaren aizkenean olloarena bezin andia. Onen ichura da alako arraultza bakar bazuek izan oi-diran modukoa, au da, azalcho batekin, bada

do onen antz andia, ichia alde guztietatik eta dago erdi betea ur batekin, zeñetan dagoan aurra igari bezala, eta ur onek gordezendo kampotik etorrilitzaiokion oker guztietatik, eta gañera janaritzendo. Ar bat bezala dago lembiziko illean eta aiñ chikia izanagatik izer gauza miragarria! berekin dauka gizonaren imagiña osoa, ez da mogitzen lau edo bozt illabete artean, baña ezagutzenda eta badakigu bizirik dagoela bere biotzaren ibillera edo mogimentuan.

IX

Aur oiek nola bataiatu litezkean

Danik eta chikiena izan arren aurra da, eta bataiatu egiñ bearda zerurako izan dedin. Onetarako lendabiziko bi edo iru illa-betetan

munduratzan diranak, etortzen dira azalcho batean bituta, lenago ezan degun bezala, eta au urratu gabe bataiatu bearda modu onetan: *aurra, bizi bazera; nik bataiatzen zaitut Aitaren eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.* Eta segituan arturik ur epela ontzi batean eta au ez badago, otza, sartu bearda au eta urraturik bildurik dagoan boltza, aurreneko beatz biakin, ezan bear dira berriro itz oiek: *aurra, bataiaturik ez bazaude, nik bataiatzen zaitut Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean* (1).

Bertitza edo abortua gertatzen

(1) Bataioko Sakramentua ezin eman liteke bi aldiz, bada au, konfirmazioa, eta ordena, ez dira birritan ematen, zergatik ez da beñere galtzen an ematen zaion señailea Baña nola bai bataioa dan bear bearrenekoa, Elizak ez du nai ezerrere uztea anima salbatzeko, eta beragatik bataiatu bearda ezan degun moduan.

zaionean emakume bati, begiratu bearda kontu guztiarekin odol artean dagoan edo ez aurraren ichura edo antza duen gauzarik, eta duda egon arren, eta au naiz andia izan bataiatu bearda, baita ere illda dagoela iritzi arren, nolatan segurantza andirik ezpadago, eta bataiatu bearda modu onetan: aurrari bizi bazera, nik bataiatzen zaitut Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean (1).

Noiz bait gertatu oi da irtetzea aragizko puzkacho bat bezala eta izan oi da *emartu galdua*, baña alaz guziaz ere egon-liteke barrunean aurrari eta bera gatik puzkatu bearda ala dan edo ez ikuzteko, eta aurraren ichurakorik billatzen bada bataiatu bearda, oraiñ aitz-

(1) Aimbezte aldiz ezaten badegu Iru Persona Jaungoikozkoaren izenak da obetoago komprenditzearen.

tian ezan dan bezala, *aurra bazera eta bizi bazera nik bataiatzen zaitut Aitarean, eta Semearen, eta Espirituaren izenean.*

Aizkenik, ez naiz azpertuko ezatez, naiz goaikarriaren izena eman, milla bider ezan gabe abortuetan irtetzen dana ez botatzeko ondo ikuzi gabe, eta baldin billatzen bada odol artean aurraren antzik duanik bataiatu beardala, eta ez aztu onekin, naiz bizidan señalerik ez eman, eta naiz utztel usaia iruki arren, bada, au ez da beti illda-dagoan señailea aur chiki oietan, eta bezterik kezkarik ez idukitzeko bataiatu beardira lenago ezan degun moduan.

Eta bukatzeko, ordu azko pazatu arren abortua izan dala, ez utzi ondo ikuzi eta bataiatu gabe, bada bizi luzea izan oidute onelakoak.

X

Jaiotza ill-anzekoa

Banaka bazuek jaiotzen dira illik dauden bezala, arnaza gabe, pulso gabe, ta mogimentu gabe, batez ere aur jaiotza neke andiko eta luzetan. Aur oiek bataiatu beardira kondizioaren azpian bizi bazera *nik bataiatzen zaitut Aitarean, eta Se-mearen, eta Espiritu Santuaren ize-nean*, nolata oso uztelduta jaio ezpada. Eta gero bearda saiatu pistutzen edo bizia ekartzen modu onetan: aztindu pizkacho bat, orobat eztutu zabela eta pechua, arnaza etorri-dakion, eman kolpe chiki batzuek gorputzean, eta guztiaz gañera garbitu aua, eldu mingañetik aurreneko beatz biakin eta erabali atzera eta aurrera, eta ez dembora pizka batean bakarrik, baizikan dembora luzean, bada

gertatu izan da eta ezperienziak erakuzten digu kriatura azko bizitzera ekarri-dirala illtzat luzaro utzita gero.

¿ ?

Baldin nor bait arkituko baliz kristauak ez diran aur jaiotza batean, orduan emagintzan dabillanak edo bezte edozeñek, baldin aurra illtzeko zorian badago beardo bataiatu, eta au ber bera egiñ bearda abortuekin.

Vergara-n, Orrillan 1909.

A. M. D. G.

Sendatzalle batek.

ATZENA

ARKI-BIDEA

I.—Erregua	5
II.—Bataioaren lembiziko zatia .	7
III.—Bataioaren bigarren zatia .	8
IV.—Bataioaren irugarren zatia .	10
V.—Konziderazioa abortuen ga- ñean. Lembiziko zatia. . .	13
VI —Konziderazioa abortuen ga- ñean. Bigarren zatia . . .	16
VII —Nundik nora datortzen abortuak.	18
VIII.—Nola abiatzenban abortua,	21
IX.—Aur oiek nola bataiatu litez- kean	22
X.—Jaiotza ill-anzekoa	26











